



Leioako unibertsitatean atzo izandako mahainguruko partaideak.

SIMAL

Autodeterminazioaz mintzatu dira Leioan zortzi talde herritar

Aldarrikapenetik ekintzara jauzia emateko premia azaldu da

Zortzi talde herritarar bildu ziren atzo Leioako Unibertsitatean egoera politikoa aztertzeko. Herri ekimenaren batasun beharra apimarratzeko orduan bat etorri baziren ere, desberdintasun nabarmenak sortu ziren azkerketa politikoan zein hauteskundeen aurreko jarrera.

I. URIARTE / LEIOA

Herrien Liga, Euskaria, Orreaga, Arana Goiri Anaiak, Abertzaleok, Herria 2000 Eliza, Bai Independentziari eta Elkarri lehenengoz bildu ziren mahainguru batean atzo.

Anton Ormaza Arana Goiri Anaiak elkarteak Luis eta Sabinoren eginkizuna goraipatu ondoren, herri erresistentzia eragilea sortzeko premia azaldu zuen. Bermeoko abertzale historikoak batasun premia azpimarratu zuen. Mende hasierako kanta bat gogora ekarri «euskaldun guztiak batuz gero ez gara beldur izango Madrilen sartzeko ikurrina aurretik» ziurtatu zuen.

Antxon Belaportuk Lituaniako ereduak ekarri zuen. Euskal Herrian ere «independentista guztien batasuna eta aske izateko gogoia behar dira», azaldu zuen Abertzaleok taldeko eledunak. Ildo berean nabarmendu zuen «herri bat ez dute egiten mugek, hizkuntza, kultura eta nortasun bat izateak baizik». Euskal Herriak, NBEn agiriaren arabera, autodeterminazio eskubidea daukala berretsi zuen Belaportuk.

ALDARRIKAPENETIK EKINTZARA PASATU

Iñigo Bilbao Bai Independentziari taldekoak aldarrikapenetatik ekintzara pasatzeko premia azpimarratu zuen. «Espai-

niarrak ez dira beldur euskaldunon aldarrikapen hutsez», ziurtatu zuen. Horregatik garrantzitsutzat jo zuen «abertzale izatetik independentista izatera eman den urratsa».

Ormazaren ildoak hartuta, Bilbaok azaldu zuen Aranatarren meritua izan zela Euskal herriari himnoa, ikurrina eta alderdia ematea, «nortasuna berreskuratzeko tresnak» alegia. Xaho, Campion, Aranatarrek eta ETAren sorrerak jauzi kualitatiboak ekarri zituztela iritzi zion. Egun beste jauzi garrantzitsu bat soldadutziari muzin egitean dagoela iritzi zion. Kazetariak gogorarazi zuen «Euskal Herrian % 50 gaztek ez dutela soldaduzkarik egiten».

Jesus Mari Zalakainek hausnarketa eta eztabaidarako plataformatzat jo zuen Herria 2000 Eliza aldizkaria. Urtetan egin dituzten argitalpen eta jardunaldiak gogoratuz, Zalakain ere bat etorri zen «autodeterminazio eskubidea aldarrikatzetik egunero praktikan jarri behar dena aipatzeko orduan».

Herrien Ligako Joseba Tobar Arbuluk Euskal Herriaren arazoa nazioarteko foruetara eramane behar dela azpimarratu zuen. NBEna eta nazioarteko auzitegiara alegia.

KRIKA ZORROTZA ALDERDIEI

Mikel Urkola Euskariaren ordezkaria oso kritikoa agertu zen partiduekiko. «Alderdiak ez dira gauza herrien askatasuna lortzeko», ziurtatu zuen, eta geroxeago «indarrak batu behar dira, eta alderdiek ezin dute batasuna lortu». Euskariako ordezkariaren aburuz Konstituzioa, instituzioak eta Estatutua «zapaltzaileek menderatuak engainatzeko» erabiltzen dituzten tresnak dira.

Orreaga taldeko Joseba Ariznabarreta harago joan zen esanez «alderdiek ez dute Euskal herria-

ren boterea erakusten». Transizio politikoa aztertuz Espainiar parlamenturako hauteskundeak baino lehen Euskal Gobernu bat ezartzeko aukera galdu zela adierazi zuen.

Gotzone Sestorain Euskal Herriak bizi duen enfrontamendu egoeratik abiatu zen.

Poliziaren aurka Parisen izandako atentatua IK-k hartu du bere gain

M. E. / BAIONA

Iparretarrak erakundeak, agiri baten bidez, bere gain hartu du joan zen larunbatean Frantziako Poliziaren laborategiaren aurka Parisen izandako atentatua. Bestalde, abenduaren 11n Angelun izanako beste atentatua ere, Jean-Michel Pitounen etxe agentziaren aurka, errebindikatzen du IK-k.

Pariseko ekintzari dago-kionez, Iparretarrak esplikatu zuenez: «Azken hatsetan den sozialista botereari argi eta garbi nahi izan diogu erran ez gaituela bere sareetara bilduko. Ez du balio, bozketak hurbiltzearekin batean, zimino-keriak egiten hastea, hamar urtez sozialisten frantseskeriaz aski ikasi eta sufritu baitugu. Azken egun horietan hartu zituzten erabakiak zer ote dira Euskal Herriari zor zaionaren aldean? Porroskeriak besterik ez».

Orain arte Iparretarrak ez zuten sekulan atentaturik egin Parisen. Iturri polizialen arabera, kalte materialak besterik ez zituen eragin eta bonba indar txikikoa zen. Angelun aldiz, agentzia osoa suntsitu

zuen erakunde armatuak.

Angeluko etxe agentziaren aurkako atentatuari buruz, IK-k honako hau dio: «Jean-Michel Pitounek dioenez, ez du turismorako etxegintzan lan egiten. Jende xumearentzat bizitegi berritzetan ari dela erran digu eta ez litzateke, beraz diru gosez ezin asean dabilzan promotore horietarik». Bere atentatua esplikatzeko, IK-k gaineratzen duenez: «Guk dakigunez, Pitoun anaiaetik ez da bat bestea baino hobea denik, biek gure euskal lurra tratugai hartua baitute, kanpotar aberatsen eskuetan ezarteko. Tratu horietan nor da petzero, gu ez bagara? Lapurdiko itsasalde osoan eta gero eta gehiago barnealdean ere etxesariak gure auzo herrialdeetan baino % 20 eta 30 garestiagoak dira, lurraren prezioa ikaragarri goratuz doa.

Etxegintzari buruz, IK-k bere ohizko eskaera plazaratzen du: «Diru tratularien zeingehiagoka horretarik gure herria behar da, badaezpada, gerizatu eta gaur egun bidean edo asmotan diren turismorako etxegintza proiektu guztiak berehala gelditu».



IDIAZABALGO UDALA IRAGARKIA

Arau Subsidiarioetako 6.2 Areako Urbanizazio Proiektuaren behin betiko onarpena

Indarreango legediak ezarritakoarekin bat, honen bidez jakinerazten da, Idiazabalgo Udalak, 1990eko ekainaren 19an egindako Batzaraldian, P. M. Azkue Elozegi Ingeniariak erredaktaturiko Arau Subsidiarioetako 6.2 Areako Urbanizazio Proiektuari behin betiko onarpena eman zaiola.

Halaber jakinerazten da, Erabaki honen aurka jo daiteela, Batzar Osoaren aurrean, Berraztertze Errekurtsoa aurkeztuz, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, hilabeteko epe barruan.

Arau Subsidiarioetako 14. Sektorea -Errota-ko Urbanizazio Proiektuaren behin betiko onarpena

Indarreango legediak ezarritakoarekin bat, honen bidez jakinerazten da, Idiazabalgo Udalak, 1992ko azaroaren 26an egindako Batzaraldian, I. Laskibar Urkiola eta F. Carazo Amundarain Arkitektoek erredaktaturiko Arau Subsidiarioetako 14. sektorea -Errota-ko Urbanizazio Proiektuari behin betiko onarpena eman zaiola.

Halaber jakinerazten da, Erabaki honen aurka jo daitekeela, Batzar Osoaren aurrean, Berraztertze Errekurtsoa aurkeztuz, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, hilabeteko epe barruan.

Arau Subsidiarioetako 12. Sektorea -Eziolatza-ko Urbanizazio Proiektuaren hasierako onarpena

Indarreango legediak ezarritakoarekin bat, honen bidez jakinerazten da, Idiazabalgo Udalak, 1992ko abenduaren 22an egindako Batzaraldian, Alberto Zabala eta Manuel Jimenez Arkitektoek eta Jose A. de Francisco Bide Ingeniariak erredaktaturiko Arau Subsidiarioetako 12. sektorea -Eziolatza-ko Urbanizazio Proiektuari hasierako onarpena eman zaiola.

Halaber jakinerazten da, aipaturiko gaiari dagokion espedientearen jendaurrean erakutsirik dagoela Udaleko Idazkaritzan aztertu ahal izateko eta dagozkion alegazioak aurkezteko, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, hamabost eguneko epe barruan.

Udalak bultzaturik, Arau Subsidiarioetako 12. zb. -Eziolatza-ko Sektoreari dagokion Birzatiketa Espedienteari hasiera ematea

Indarreango legediak ezarritakoarekin bat, honen bidez jakinerazten da, Idiazabalgo Udalak, 1992ko abenduaren 22an egindako Batzaraldian, Arau Subsidiarioetako 12. zb. -Eziolatza-ko Sektoreari dagokion Birzatiketa Espedienteari hasiera emateko erabakiarekin batera ondorengoak ere hartu zituela:

- Birzatiketak eragindako lur-jabe eta eskubidedunei, beraiei dagozkien tituluak aurkezteko eta beren ezaguerako lege-egoera adierazi dezatela eskatzea.

- Birzatiketa onartzen duen akordioa administrazio bidean behin betikoa bilakatu arte, Hirigintza Kudeaketako Erregelamenduak 104. artikuluan ezarritakoaren arabera, lizentziak emateko aukera etenda geldituko da.

- Hirigintza Kudeaketako Erregelamenduko 106. artikuluan arabera eta bertan ezarritako baldintzei atxekituz, jabeek Birzatiketa Proiektua aurkeztu ahal izango dute hiru hilabeteko epe barruan.

Idiazabalen, 1992ko abenduaren 29an. ALKATEA